Gure mundutxoa



Expolingua'88

Joan zen martxoaren 17tik 22ra izan zen Madrilen *Expolingua'88* kongresua, hiru sail handitan banatua: elebitasunari emandako gai monografikoa, hizkuntzen irakaskuntzari buruzkoa eta mahainguruz osatutakoa.

HABE ere han izan zen. Glotodidaktika-Zerbitzuko Gurutz Larrañaga eta Pello Esnal eta Batzorde Akademikoko Mikel Lizarraga partaide izan ziren hizkuntz irakaskuntzaren metodologiari eskainitako hitzaldietan; baita liburutegiko arduradun den Imanol Irizar ere hizkuntz irakaskuntza gai duten liburu eta material didaktikoen erakusketan.

Aurrikusitako hamairu hitzaldietatik hamabi eman ziren 19 eta 20an, hizkuntz metodologiari buruz. Hona hemen, beraien zerrenda eta bakoitzaren hizlariaren berri:

1. La lingüística del texto y la enseñanza de la composición:
   Marcelino Marcos Ochoa, Madrilgo Unibertsitate Autonomoa-Ortega y Gasset Institutua.
2. Valoración teórica del enfoque comunicativo:
   Helena Mazo, Stanton School.
3. Variedades del español: ¿cuáles enseñar?:
   Francis Lautre, Nafarroako Unibertsitatea.
4. Cuestiones dialectales y enseñanza del español como lengua extranjera:
   Rosa Vila, Barcelonako Unibertsitatea.
5. Conversación y enseñanza de la lengua:
   Jenaro Ortega, Granadako Unibertsitatea.
6. La lectura en un curso de principiantes:
   M. José Hernández, Barcelonako Hizkuntz Eskola Ofiziala.
7. La prensa y otras publicaciones periódicas en la enseñanza del español como lengua extranjera:
   Blanca Aguirre, Madrilgo Unibertsitate Autonomoa.
8. La adquisición del español y la gramática pedagógica:
   Juana Muñoz Liceras, Otawako Unibertsitatea-Ortega y Gasset Institutua.
9. Traducción y didáctica del español como lengua extranjera:
   Amparo Hurtado, Barcelonako Unibertsitatea.
10. Hacia una ejercitación de la pragmática:
    Jan Peter Nauta, Testugilea.
11. Presentación de los materiales de R.N.E.:
    Sara Arcas del Río, R.N.E.
12. Civilización/cultura en los cursos de español como lengua extranjera:
    Kurt Gröstsch, Tandem zentru espainiar-alemaniarra.

Zenbait puntu aipatuko ditugu balorazio gisa:

- Antolatzaileek uste baino partaide gehiago izan zen: ehunetik gora. Badago nonbait bazterretan premia.
- Hitzaldiak ordubetekoak izan ziren, teorikoak alabeharrez eta elkarren segidan emanak.
- Gorabehera handiak izan ziren hitzaldien artean: batzuk onak (3, 4, 5 eta 9), beste batzuk eskasak (1, 2, 7 eta 10).
- Orain arte metodologia izan bada hainbat proiektu, lan, jardunaldi eta ekintzaren gai, badirudi aurrerantzean irakasleen prestaketak kenduko diola tokia.

Zutabe

Euskara-irakasle eta irakaslegaientzat ikastaroa Zornotzan

Uztarri Kultur Elkartearen eskariz antolatu zuen HABEk Zornotzako Udal-Euskaltegian bi asteko ikastaroa, euskara-irakasle eta irakaslegaiei zuzendua. Maiatzaren 16tik 27ra bitartean eman zen eta 25 lagunek hartu zuten parte goizeko bederatzietatik ordubietara.

Ikastaroak glotodidaktika izan zuen ardatz nagusi, euskararen lantzea saihestu gabe. Besteak beste, honako gai hauen inguruan egin zen lan:

- Euskararen egoera soziolinguistikoa.
- Helduen alfabetatzearen eta euskalduntzearen historia eta egoera.
- Hezkuntza: hezkuntza formala, informala eta ez-formala. Euskararen irakaskuntzari aplikazioa.
- Andragogia eta Pedagogia aurrez aurre.
- Andragogiaren printzipio nagusia. Andragogia eta hizkuntzen ikaskuntza.
- Hizkuntz irakaskuntzaren programazioa.
- Helduen alfabetatzearen programa.
- Helduen euskalduntzearen programa.
- Lehen hizkuntza eta bigarren hizkuntzaren arteko dikotomia.
- Bigarren hizkuntzen irakaskuntzako metodologia. 1. Gramatika eta itzulpenean oinarritutako metodoa; 2. Metodo zuzenak; 3. Metodo estrukturalak edo audiolingualak; 4. Metodo kognoszitiboak; 5. Gaurregungo joera metodologikoak.
- Klaseko hiru etapa nagusiak: aurkezpena, praktika kontrolatua eta lan sortzailea.
- Mintzamenaren lantzea.
- Entzumenaren lantzea
- Irakurmenaren lantzea.
- Idazmenaren lantzea
- Ariketa hizkuntz irakaskuntzan: 1. ariketa analitikoak edo gramatika-ariketak; 2. ariketa komunikatiboak
- Hizkuntz laborategiak eta ikusentzunezkoak hizkuntz irakaskuntzan.
- Ebaluazioa hizkuntz irakaskuntzan.
- Helduen euskara irakaskuntzaren ebaluazioa: 1. EGA; 2. Alfabetatze prozesuaren ebaluazioa; 3. Euskalduntze prozesuaren ebaluatzea.

Irakasleak, berriz, HABEren Glotodidaktika-Zerbitzuko honako hauek izan ziren: Jose Joan Txabarri, Gurutz Larrañaga, Pello Esnal, Itziar Arrieta, Joanba Bergara, Lourdes Elosegi, Begoña Martinez eta Josu Perales.

Pello Esnal

Aurten Bai 88: «Gu bagoaz aurrera»

Joan den uztailaren 21ean aurkeztu zen Bilbon «Gu bagoaz aurrera» lemapean *Aurten Bai'88,* Bizkaiko helduen euskal alfabetatze-kanpaina. Hirugarren *Aurten Bai* kanpaina dugu aurtengoa, berriro ere Bizkaiko Udal Euskaltegiek, Foru Aldundiak eta HABEk elkarlanean antolatua, 1986ko alfabetatze-kanpaina eta 1987ko *Aurten Bai* kanpainaren haritik.

Aurkezpenean Eusko Jaurlaritzako Kultura-Sailburua den Joseba Arregik eta Bizkaiko Ahaldun Nagusia den Alberto Praderak hartu zuten parte. Jose Antonio Ardanzaren ordezkaritza zuen Joseba Arregik, gertatuberri ziren uholdeek ez bait zioten Lehendakariari bilboratzen utzi.

Joseba Arregik irakurritako Lehendakariaren hitzaldia eta Jose Alberto Praderarena dakartzagu ZUTABE honetara, alfabetatze-kanpainen muinaren eta ahaleginen adierazgarri.

- **Jose Antonio Ardanza Lehendakariaren hitzaldia**

Alfabetatzeak Euskal Herrian badu bere historia. Makina bat saio eta esperientzia egin izan da alor honetan. Gaur aurkezten dugun honetan, Lehendakari naizenez, dei tinko bat egin nahi nizueke zuei, euskaldunoi, eguneroko bizitzaren zereginetan euskaraz barra-barra ari zaitezten, euskaldunok euskararen berpizte eta indartzearen zeregina erdal-

dunen bizkar uzteko joera bait dugu, euskaraz hitz egiten dakigunok beste inolako eginbeharrik ez bagenu bezala.

Alabaina, euskararen berreskuratzeak, erdaldun guztien euskalduntzearekin batera, euskaldun guztion alfabetatzea eskatzen du. Horretarako, ordea, euskaldun helduen erantzukizuna eta ardura esnatu eta bideratu beharra dago. Bestela, euskarak ez du etorkizunik. Euskaldunon ardurarik gabe, motz gelditukо da berreuskalduntzearen ahalegina.

Euskaldun helduen alfabetatzeak bere tokia eta dinamika lortu behar du, euskara Euskal Herriaren hizkuntza nazionala bihurtu nahi dugun honetan. Funtsezko eginkizun honi ekiterakoan, Rikardo Arregiren hitzak datozkigu gogora: «gaur, hizkuntza bateko semeek, iraupenerako, beharrezkoa dute kultura, beharrezkoa beren hizkuntzan irakurtzen eta idazten jakitea».

«Aurten bai» kanpainarekin mugarri sendo bat jarri nahi genuke gaurregun Euskal Herriak bere hizkuntza berreskuratzeko ari duen ahaleginean; alfabetatzeak plangintza zabala eta zehatza eskatzen bait du, nahi ditugun helburuak benetan lortu nahi baldin badira. Helduen alfabetatzea euskal kulturaren beste zenbait arloren pizgarri eta eragile izan daitekeelakoan gaude. Hori dela eta, aurrerantzean eginkizun honi berez dagokion lehentasuna eskaini nahi diogu.

Arriskuan dauden hizkuntzen kasuan etxeko eta etxe-inguruko hiztunen urritzea geldi arazi behar da lehenik eta behin. Alferrikakoa da astrofisika eta antzeko gaiak euskaraz irakatsi ahal izatea (talde txiki batentzako bait dira), baldin eta ez baditugu zaintzen belaunaldiz belaunaldiko hizkuntz transmisioaren oinarri-oinarrizko eragileak: etxea, auzoa, oinarrizko irakaskuntza, lan-mundua.

Euskara salbatuko bada, behar-beharrezkoa da lehen mailako alor-barruti horien lehentasuna aitortzea. Horrexegatik da garrantzizkoa herri eta auzo euskaldunetan tankera honetako kanpainak egitea.

Era berean, hizkuntza bat berreskuratzeko ezinbestekoa dira erreferentziak. Horrexegatik jo behar dugu lehen eginkizuntzat euskaldun hiztunen taldea sendotzea eta indartzea.

Are gehiago: alfabetatze-kanpaina baten helburuak ezin dira herritarrei euskaraz idazten eta irakurtzen irakaste hutsera mugatu.

Eskolatua izan ez den euskaldunzaharrak, askotan lotsa sentitzen du etxetik jasotako euskara kaxkarra delakoan, eta gutxietsi egiten du bere burua. Beraz, garbi dago honelako kanpaina baten goi-helburuetako bat: euskaldunzaharra harro senti dadila berea duen altxor paregabe horretaz.

Honekin lotuta, kanpaina izateak baditu bere zentzu eta abantailak ere, garrantzitsua bait da euskara eta euskal giroa zuzpertzea.

Lehenago aipatu ditugun alor-barrutiak finkatzeaz gain, beharrezkoa du euskaldunak eguneroko bizitza eta harremanak euskaraz burutu ahal izatea; izan ere, euskaraz bizitzeko aukeraren eskutik helduko bait zaio, besteak beste, bizipoza.

Bestalde, ez nuke aipatu gabe utzi nahi, honelako lan ezkerga aurrera ateratzeko elkarlanaren beharrizana. Eta hori bizkaitarrok era oso egokian ulertu eta gauzatu duzue. Benetan azpimarratzekoa da lurralde honetako hiru euskal erakunde publiko nagusienak bat egitea. Udalek, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak HABEren bidez, egitasmo hau beren baliabideez hornitu bait dute bakoitzak bere esparru eta ikuspegitik.

Askotan aipatu da euskaldunok zerbaitek batuko bagaitu euskarak batuko gaituela. Eta hemen, egitasmo honetan dugu frogarik adierazgarriena. Hauxe dugu zalantzarik gabe, jarraitu beharreko bidea.

Argi dago, gainera, herri batek kultur egitasmo bat burutu eta aurrera eraman nahi badu, erakunde desberdinetako lan-amankomun eta koordinatuan oinarritu behar dela. Horretan ahalegin handi bat egin behar dugu euskaldunok, gure ohizko ezaugarria berreskuratzeko.

Beraz, ekin ezazue gogor hartu duzuen bidean. Herri honek bere buruaren jabe izan nahi badu, orain sendotu behar bait ditu etorkizunaren habeak.

Herri honen hizkuntza zaharra gaurkotzea eta euskaldunon ohizko komunikabide bilakatzea lortu nahi da, azken finean, egitasmo honen bidez. Apostua egina dago eta bideak zabalik, lanari ekin nahi dioten guztientzat.

· **Jose Antonio Pradera Bizkaiko Ahaldun Nagusiaren hitzaldia**

Gaur hemen aurkezten dugun 88ko alfabetatze-kanpaina aurreko urteetan eginiko lan serio eta sendoaren ondorioa da.

Honetaz jabetzeko ezinbestekoa da iazko kanpainaren hainbat datu adierazgarri aipatzea:

— Ikastaro hauek Bizkaiko 70 herri zein auzune euskaldunetan antolatu ziren.
— Ikastaro hauetan 2.000 ikasle inguruk ihardun zuten euskara lantzen eta hobetzen, hauetarik %60a 25 eta 45 urte artekoak zirelarik.
— Ikasle-kopuru honi eskolak ematen bertako euskalkia edo herri-hizkera ezagutzen zuten tokian tokiko 100 irakasle ibili dira.

Datu gehiago aipa badaiteke ere, nahikoa dira hauek egitasmo honen garrantzia erakusteko. Horregatik, ezer baino lehen, nire esker onak agertu nahi nizkieke euren lana, ahaleginak eta baliabideak aportatu dituzten guztiei: HABE-ri, Udalerriei, Udal Euskaltegiei, irakasleei zein ikasleei eta gainontzeko arduradunei.

Foru Aldundiaren arreta berezia merezi dute gure hizkuntzaren hedapen eta erabilerarekin zerikusia duten gorabeherek.

Baina kasu honetan gainera ahaztu ezin dugun beste ezaugarri bat ageri da: Bizkaiko 70 herri zein auzunetan antolatuak izatea.

Eta honako egitasmo hau berez interesgarria bada, interesgarriago gertatzen da Aldundiak Bizkaiko Udalerriei eskaintzen dizkien zerbitzuen artean kokatzen delako.

Kontutan hartu behar da, baita ere, kanpaina hau batez ere herri txikietan antolatzen dela; eta kontrakoa pentsa badaiteke ere, Bizkaiko herrien %70a 5.000 biztanle baino gutxiagokoak dira eta kultura arloan zerbitzuak eskaintzeko aukera gutxi dutenak.

Azkenik, interesgarriak iruditzen zaizkidan bi puntu aipatu nahi ditut: bizkaieraren erabilera eta bide berriak.

Denok, asko edo gutxi, gure hizkuntzak, ez bakarrik soziologikoki baita linguistikoki ere, standarizazio eta normalizazioaren beharra duela argi ikusten badugu ere, ezin dugu ahaztu euskalkien errealitatea.

Horregatik, kanpaina hauetan bizkaiera normaltasun osoz eta ikuspegi didaktiko eta oinarri metodologiko sendoz, beste planteamentu eta eztabaida antzuetatik ihes eginez erabiltzen da. Eta ikuspegi honetatik, zalantza barik, euskarak eta euskaldunek hizkuntza alorrean duten aberastasuna lortzeko bideak jartzen ditugu.

Bide berriei dagokienez, zera esan nahi dizuet: euskara lantzeak, beste edozein gai lantzeak bezelaxe, ahaleginak eskatzen dituela; beraz, aldiro-aldiro, irudimena erabiliz, bide berriak urratu eta aukera ezberdinak eskainiz, euskararen lanketa hori erakargarriagoa bihurtzen saiatu behar dugu.

Esan nahi honetan aipatu beharrekoa da aurrepausu garrantzitsu gisa ZEU ZEUTARA deritzon bakarkako metodoa, euskara landu nahi izan arren, euren lana eta zeregina direla eta eskolara joan ezin dutenentzat aukera berria.

Ekimen honetan, nik dudan itxaropenaren partaide izateko euskararen «lekukoa» hartuz, gizarte honetan bizimodua euskaraz bizi ahal izateak dakarren helmugara eramatera animatzen zaituztet.

* * *

Aurten Bai 88 kanpainak izan zuen oihartzunik prentsan. Besteak beste, honela zioen Jose Ramon Belokik *Deia*n uztailaren 22an *Aurten (eta beti ere) bai 88* izeneko idatzian:

> «Izaki material eta materialistikoak izanik ere, ez dugu oraindik erabat galdu idealen baitan —maitatuak batzuk, kolektiboak beste batzuk— bizitzeko gaitasuna eta premia. (...) Hizkuntza orok bizirik irauteko ideia bat behar du, xede bat, eta munduari eta razionalari buruzko ikuspegi bat. Izaki etnolinguistiko berezi izaten jarraitzeko grina da oinarrizko eta sustraiko «ideia». Ideia honek babestu behar du beste guztien gainetik, hil ala biziko gataskan ari den hizkuntz komunitatea. Hizkuntza osasuntsuetako hiztunen gehiengoa ez da beti horren jakinaren gainean egoten; kinka larrian dauden hizkuntzadunen artean, berriz, txikitandik garatu behar da norberaren hizkuntzarekiko erantzunkizunaren kontzientzia eta maiz bizkortu.»

Joshua A. Fishman-ek idatzi eta irakurritako hitzak Georgetown University-ko mahai-inguru batean, gaia «Hizkuntzaren hedapena eta hizkuntz politika galbidean dauden hizkuntzentzat» zela.

Hitzaldi horretan beste ideia asko ez munta gutxiagokoak edota euskarari gutxiago aplika dakizkiokeenak esan zituen Fishman-ek. Esaterako, Ardanza Lehendakariak honako hau jaso zuen berak prestatu eta haren izenean Joseba Arregi, Kultura-Sailburuak «Aurten bai 88» alfabetatze-kanpaina aurkezterakoan irakurri zuen hitzaldian. «Arriskuan dauden hizkuntzen kasuan etxeko eta etxe-inguruko hiztunen urritzea geldi arazi behar da lehenik eta behin. Alferrikakoa da astrofisika eta antzeko gaiak euskaraz irakatsi ahal izatea (talde bitxi batentzako bait dira), baldin eta ez baditugu zaintzen belaunaldiz belaunaldiko hizkuntz transmisioaren oinarri-oinarrizko eragileak: etxea, auzoa, oinarrizko irakaskuntza, lan-mundua.»

(...) Arrakastaren eta lurralde jakin batean burutzearen gainetik, kanpainaren planteamendua eta mezua dira azpimarratu beharrekoak: euskaraz dakigunok euskaraz egiteko ordua da. Batez ere geure betiko eta hurbileneko inguruan eta eguneroko gorabeheretan. Eta, gainera, euskaraz irakurri eta idazteko gauza izan behar dugu. Horrela bakarrik lortuko da euskarak beste batzuen estimazioa bereganatzea eta Euskal Herria berreuskalduntzea. Hori da gure erantzunkizuna.

Begi bistakoa egiak? Bai. Baina ahaztutakoak. Horregatik beti aritu behar gogorarazten.»

Zutabe

Neurolinguistika eta ikaslearen autonomia

Martxoaren 21etik 23ra, bi urtean behin egiten den bezala, Berlin Mendebaldekoan RFAko Hizkuntza Arrotzetako Irakasle Elkarteen Biltzarra burutu zen, atzerritarrei zuzenduriko Alemanierak, Ingelesak, Frantsesak, Italierak eta Gaztelerak beren arloa zutelarik; ez zen falta izan donostiar «stand» eta txostena Gaztelera-arloan.

Ekitaldien artetik hauexek aipatuko genituzke

Bretainia Haundiko Mario Rinvolucri-k tailer-gisa emandako txostena, «Neurolinguistic Programming» (Bander/Grinder-en NPL) eta bere «Learning Another Language Through Actions» liburuaren ikuspegia tipifikatzeko, era askotako ariketak erabili zituen, hots, «ikusi-entzun-sentitu-usaindu-dastatu» arloetan zenbait hitzekin erlazionatzen den oro apuntatzea; edota historia berdina behin eta berriro kontaeraztea, errepikapen bakoitzean zera ezberdin bat azpimarratzen delarik, «mugimenduak-entzuten dena-ikusten dena», esate baterako. Guzti honen bidez ikasle bakoitzarengan gehien nabaritzen diren perzepzio-bideak ediren eta beraien arabera egindako ikasaioaren aurkezpena bereiztu nahi izan zituen. NPLk badu beste truko bat, zera honetan datzana: galdera harrigarria egin ondoren, begien berezko lehen mugimendua aztertzea (goruntz, eskuinera = zerbait asmatzen duen ikusmen-mota; goruntz, ezkerrera = zerbait gogoratzen duen ikusmen-mota; albora = entzule-mota; beheruntz = emoziokoi-kinetiko-mota).

Guztiz interesgarritzat jo nuen beste txostena Frantziako Henri Holec- -ena izan zen, erabat berekasa jokatu behar duen autodidaktarengandik aparte dagoen ikaslearen autonomiaren garapenari buruzkoa. «Independentzia mugatua» gisa definitu zuen eta zera demostratu zuen: ikaslearekin batera, ikaskuntz beharrak usnatu eta zehazten saiatzen den «aholkulari linguistiko» bihurtu behar dela irakaslea. Horrez gainera, norberaren aurrerapenaren arduraz jabetzera bultzatzen du eta ikaste-teknikak zabaltzera. Prozesu hau, hain zuzen ere, ez da bakarkako ikasaioetara mugatzen eta taldeka ere eraman daiteke. Txostenlariak erakunde bakoitzean bi ikasbide sortzea gomendatzen du: present egonez irakasleak zuzentzen duena, eta autonomiarena.

Holek eta beste zenbaitzuk CRAPELen burututako esperientziak liburu honetan argitaratuta daude: «Henri Holec, Autonomy and Selfdirected Learning», Council of Europe, Strasbourg, 1988. ISBN: 92-871-1531-1.

Jürgen Wolff
Itzultzailea: *Patxi Ezkiaga*